

Covid19aren ondorioz kaltetuak izan diren Oiartzungo komertzio, zerbitzu eta ostalaritza jarduerak berrabiarazteko ez ohiko dirulaguntza oinarriak.

1. ARTIKULUA.- Xedea eta helburuak.

Ebazpen honen xedea hau da: Covid-19ari aurre egiteko hartutako neurrien ondorioz kaltetuak izan diren Oiartzungo txikizkako merkataritza establezimenduen, ostalaritzaren eta zerbitzu denden jarduera ekonomikoa berrabiarazteko laguntzak onartzea.

2. ARTIKULUA.- Onuradunak eta parte-hartze baldintzak.

Oiartzunen txikizkako merkataritza, ostalaritza eta antzeko jarduerak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, baldin eta garatzen duten jarduerari eragin badio establezimenduen nahitaezko itxiera ezartzen duen martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10.artikulua aldatzen duenak.

Deialdira aurkeztu ahal izango dira jarraian zerrendatzen diren jarduera-sektoreetako kide diren pertsona fisiko edo juridikoak. Zerrenda orientatiboa da eta inolaz ere ez du izaera baztertzailerik:

- Salgaien txikizkako salmenta establezimenduak
- Jantzien, zapaten eta oihalgintzako salgaien txikizkako salmenta establezimenduak
- Elektragailu eta etxetresnen txikizkako salmenta establezimenduak
- Liburuaren txikizkako salmenta establezimenduak
- Erlojugintza eta bitxigintza gaien txikizkako salmenta establezimenduak
- Hotelak eta antzeko ostatuak
- Jatetxe eta tabernak
- Edergintza eta ileapaindegia establezimenduak
- Osasungintza (hortz klinika, fisioterapia, optika...) eta ongizate zentruak
- Gidatzeko, hizkuntzak ikasteko... eskolak
- Arreta zuzen eta presentziala eskaintzen duten txikizkako salmenta establezimenduak

Establezimentu guzti hauek parte hartu ahal izango dute baldintza hauek betetzen badituzte:

- Mikroenpresa izatea, Europako Batzordeak 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioan ezarritako definizioaren arabera. Mikroenpresatzat hartuko dira batez beste 10 langile (jardunaldi osora) edo gutxiagoko enpresak, baldin eta urteko negozio-bolumena edo urteko balantze orokorra 2 milioi eurotik beherakoa badute.
- Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 10. artikulua aldatzen duen martxoaren 17ko 465/2020 Errege Dekretuak ezarritako establezimenduen nahitaezko itxierak edota murrizketak euren jarduerari eragin izana. Murrizketa

izan dela kontuan hartzeko, apirilean fakturazioa %50 edo gehiago murriztu izana ziurtatu beharko da, 2019ko azken 6 hilabeteetan fakturatutako batez bestekoarekin alderatuta.

- Gizarte Segurantzako erregimenean edo dagokion Mutua profesionalean eta Ogasunean alta emanda egotea alarma-egoera deklaratzeko unean, 2020ko martxoaren 14an.
- Txikizkako merkataritzan, ostalaritzan eta antzekoetan sartzen dela egiaztatzen duen Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea, eta zerga-egoitza Oiartzunen duela egiaztatzea.
- Herritarrentzako zabalik dagoen lokal bat izatea Oiartzunen (Herrigunean, merkataritza guneeetan edo poligonoan).
- Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko eta Oiartzun Udalarekin betebeharrak egunean izatea, bai eta dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ere.
- Dagozkion udal-lizentziak izatea edo, halakorik ezean, lizentzia horiek eskuratzeko prozedurari hasiera ematea eskatu izana eta/edo dagokion aurretiazko jakinarazpena aurkeztu izana.
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluan aipatzen diren inhabilitazio egoeretako bakar batean ere ez egotea.

3. ARTIKULUA.- Diruz lagunduko diren gastuak

Gastu hauek lagunduko dira:

- Lokalaren errentamendutik/mailegutik eratorritako gastuak, ez baldin bada eskatzailearen etxearen parte edo ez bada beste enpresa batekin partekaturiko espazio bat, ez baldin bada 2. mailara arteko ahaidetasun harremanik edo bestelako afinitaterik lokalaren errentatzailearekin, eta ez baldin bada errentatzaile gisa ageri den pertsona fisiko edo juridikoaren bazkide edo partaide.
- Jarduera garatzearekin loturiko hornidura eta zerbitzu errepikakorren gastuak.
- Aholkularitza gastuak (fiskala, laborala, kontabilitatekoa, juridikoa edo administratiboa).
- Covid-19aren ondorioz sortutako aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteak (ERTE) eta jarduera uzteagatik langile autonomoentzako prestazioak (CATA) kudeatzeagatik eratorritako gastuak.
- Covid-19aren ondorioz establezimenduan egin beharreko moldaketen gastuak.
- Jarduerarekin berarekin eta enpresaren/autonomoaren jabetza ondasunekin lotutako aseguruaren gastuak.
- Hardwarea eta softwarea eskuratzea.

- Arropa, oinetakoak eta osagarriak txikizka saltzen dituzten establezimenduen kasuan, salgaien erosketa edo hornikuntza, 2020ko udaberri-uda denboraldirako.

Gastuen %100 laguntzen da diruz. Ez da onartuko 50 eurotik beherako gasturik (zergak kanpoan utzita).

Inoiz ez dira joko diruz laguntzeko moduko gastutzat balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta gainerako zeharkako zergak.

Osorik edo zatika diruz laguntzeko gastutzat hartuko dira alarma egoera dekretatu zen lehen egunetik hasi (2020ko martxoak 14) eta deialdi honen eskaerak egiteko epearen azkeneko egunera arte egiten direnak.

Diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko dira, oro har, diruz lagundutako jardueraren ezaugarriari argi eta garbi erantzuten dietenak eta oinarriotan ezarritako epearen barruan gauzatzen direnak.

4. ARTIKULUA.- Diruz lagunduko ez diren gastuak.

Ez da diru laguntzarik emango honelako gastuetarako:

- Administrazio publikoak, haien erakunde autonomoak, enpresa publikoak eta beste erakunde publiko batzuk, bai eta elkarteak, fundazioak eta, oro har, irabazi-asmorik gabeko erakundeak.
- Zerbitzuak online edo etxez etxeko salmenta bidez lanean jarraitu dutenak, euren fakturazioa ez bazaie %50 edo gehiago murriztu apirilean, 2019ko azken 6 hilabeteetan fakturaturako batez bestekoarekin alderatuta.

5. ARTIKULUA.- Diru laguntzaren kontzeptuak eta irizpideak.

Zenbatekoa.

Dirulaguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera finkatuko da.

5.1. Dirulaguntzak emateko irizpideak

Laguntzaren oinarria	€
Guztientzat	1.000

Langile kopuruaren arabera	€
1-3	200
4-6	300
7-10	400

Alokairuaren/hipotekaren zenbatekoa hileko	€
<600 €	100
601-1000 €	200

>1001 €	300
---------	-----

Higiene eta segurtasun neurrien gastuak	€
Euro bakoitzeko 0.50 €	300 €arte

Gehienez establezimendu bakoitzak 2.000€ko dirulaguntza jasoko du. Justifikatutako dirulaguntza oinarria baino gutxiago bada, proportzionalki kalkulatu da dirulaguntza.

5.2. Aurrekontua

Dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira, 150.000 € euroko izendapena eginda dago, Oiartzungo Udalaren 2020 urteko aurrekontuko 1 0903.481.430.00.01.2020 zenbakidun partidaren kontura.

Oiartzungo Udalak baimendutako gastua handitu edo murriztu ahal izango du dauden eskaera guztiak aztertu ondoren. Horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko. Hala ere, dauden eskaera guztiei erantzuteko nahikoa ez bada, modu proportzionalan banatuko da.

6. ARTIKULUA.- Eskaerak aurkezteko lekua eta dokumentazioa

Eskaerak Udaleko Erregistro Nagusian aurkeztu behar dira presentzialki edo egoitza elektronikoan Udalak horretarako jarriko dituen eskaera orrietan.

Dirulaguntzaren eskaera egiteko, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Eskaera orri orokorra.
- Fakturazioa %50 edo gehiago murriztu zaienek zinpeko aitortpena sinatu beharko dute.
- Langile kopurua aurkezteko RNT agiria aurkeztu beharko da.
- Identifikazioa: eskatzailearen NAN eta IFKren fotokopia.
- Gastuen zerrenda (kopuru totala adierazten dela) eta ordainagiriak: alokairuarena, segurtasunerako inbertsioena,...

7. ARTIKULUA.- Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea

Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badu edo zerbait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio 38/2003 dirulaguntzak arautzen dituen Lege Orokorrak eta Udal Ordenantza Orokorrak (GAO, 2018/11/30) ezarritakoari jarraiki, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko; eta adieraziko zaio ezen, hori egingo ez balu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatu legearen 23. artikuluan aurreikusitako moduan.

8. ARTIKULUA.- Epeak

Eskaerak, dirulaguntza deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, 15 egun naturaletan egin daiteke.

9. ARTIKULUA.- Beste dirulaguntzekin bateragarritasuna

Araudi honetako dirulaguntzak bateragarriak izango dira erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Bateragarritasunari buruz sortu daitezkeen zalantzak argitzeko, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak emateko Ordenantza Orokorrak (GAO, 2018/11/30) 14. artikuluan finkatzen dituen irizpideak jarraituko dira. Hala ere, ezin izango da Covid-19aren ondorioz sortutako galera ekonomikoa baino gehiago jaso. Halakorik gertatuz gero, itzulera prozedura martxan jarriko da Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzaren (GAO, 2018/11/30) IX. Tituluak arautzen duen prozedura jarraituz.

10. ARTIKULUA.- Emateko prozedura

Dirulaguntzak emateko prozedurak, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen Ordenantzak IV. Tituluan (22-23 artikulua) zehazten diren pausoak jarraituko ditu.

Udaleko iragarki taulan eta www.oiartzun.eus web orrian ere behin-behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

Dirulaguntza ordaintzea: Behin betiko dirulaguntzaren jakinarazpena eman dela jakinarazi ondoren, ordainketa tramitatuko da. Eta kontuan izango dira, halaber, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzei buruko Ordenantzaren VII. Tituluan aipatzen diren aspektu guztiak.

Dirulaguntza eman dela jakinarazi bezain laster, dirulaguntzaren %100a ordainduko da.

11. ARTIKULUA.- Onuradunen betebeharrak

- Deialdi honetako dirulaguntzak jaso dituztenek, Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak (GAO, 2018/11/30) arautzen dituen Ordenantzaren 6. artikulua ezartzen dituen betebeharrak bete beharko dituzte.
- Enpresa jarduerari gutxienez 6 hilabetez eustea, jarduerari berriro ekiteko baimena eman eta/edo alarma-egoera altxatzen den egunaren hurrengotik aurrera.
- Oiartzungo Udalarari jakinaraztea beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jaso dituela oinarri hauen xede edo oinarri berarekin.

12. ARTIKULUA.- Dirulaguntza justifikatzea

Onuradunaren betebeharrak justifikatzeko Oiartzungo Udalak egiaztatuko du ofizioz Gizarte Segurantzako erregimenean edo dagokion mutualitate profesionalean alta emanda dagoela justifikazioa aurkezten den egunean eguneratutako pertsona fisikoa edo administratzailea.

Dirulaguntzaren onuradunak fakturazio murrizpena justifikatzeko Oiartzungo Udalaren esku jarriko ditu, honek hala eskatzean, 2019ko azken 6 hilabetetako eta 2020ko lehen 6 hilabetetako faktura liburuak edo faktura zerrendak eta hauei loturiko BEZ-aitorpenak.

Betebeharrak betetzen ez badira dirulaguntza itzuli egin beharko da Oiartzungo Udalaren dirulaguntzak (GAO, 2018/11/30) arautzen dituen Ordenantzaren IX. Tituluak arautzen duen prozedura jarraituz.

13. ARTIKULUA.- Araudi osagarria

Deialdi honek ezartzen ez duenari dagokionez, aintzat hartuko da Oiartzungo Udalaren laguntzak arautzen dituen Ordenantzak (GAO, 2018/11/30) ezartzen duena eta Herri Administrazioetako dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Legearen xedapenak.

ESKABIDE OROKORRA

SOLICITUD GENERAL

ESKAERA AURKEZTEN DUENA / PERSONA QUE PRESENTA LA SOLICITUD:

Izen-abizenak / Nombre y apellidos:		NA-IFK / DNI	Sexua / sexo <input type="checkbox"/> E/M <input type="checkbox"/> G/H
Helbidea / Domicilio:		Kode Postala / CP	Herria/Población
Telefonoa	E-posta / e-mail		

Eskaera egiten dut /

Actúo:

 Nire izenean / En nombre propio Beste baten izenean / En representación**ORDEZKATUTAKO PERTSONA FISIKO EDO JURIDIKOA (norbere izenean arituz gero EZ BETE):***Persona física o jurídica representada (NO RELLENAR en caso de actuar en nombre propio):*

Izen-abizenak / Nombre y apellidos:		NA-IFK / DNI	Sexua/ sexo <input type="checkbox"/> E/M <input type="checkbox"/> G/H
Helbidea / Domicilio:		Kode Postala / CP	Herria/Población
Telefonoa	E-posta / e-mail		

*Kasu honetan ahalorde eskriturak erantsi beharko dira edo Udalean interesatuarekin batera aurkeztu ordezkaritza emateko (Apud-Akta)
En este caso deberá aportar escritura de poder o presentarse con el interesado para otorgar la representación (Apud-Akta)

Jakinarazpena bidaltzeko HELBIDEA (aurkezten duen pertsonaren helbide bera bada EZ BETE):*DIRECCIÓN para enviar la notificación (NO RELLENAR si coincide con la de quien presenta la solicitud):*

Izen-abizenak / Nombre y apellidos:		
Helbidea / Domicilio:	K.P./ C.P.	Herria/ población
Telefonoa	E-mail	

ESKABIDEAREN DATUAK/ DATOS DE LA SOCILITUD:

Gertaerak, arrazoiak / Hechos, razones:
Eskaera / Petición:
Erantsitako dokumentazioa / documentación que se adjunta:

Tokia eta eguna / Lugar y fecha

Sinadura / Firma

--	--

DATU BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA INFORMACIÓN BÁSICA DE PROTECCIÓN DE DATOS	
Arduraduna <i>Responsable</i>	<p>Oiartzungo Udala</p> <p>Helbidea: Done eztebe plaza z/g, 20180 Oiartzun (Gipuzkoa)</p> <p>Tlf. 943 490 142</p> <p>Posta: oiartzun@oiartzun.org</p> <p><i>Ayuntamiento de Oiartzun</i></p> <p><i>Dirección: Done eztebe plaza z/g, 20180 Oiartzun (Gipuzkoa)</i></p> <p><i>Tlf. 943 490 142</i></p> <p><i>Correo: oiartzun@oiartzun.org</i></p>
Helburuak eta zilegitasuna <i>Fines y licitud</i>	<p>Herritarren eskaerei arreta emateko dagokien espedienteak kudeatzea. Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean oinarritutako eskumenak garatzea.</p> <p><i>Gestión de expedientes relativos a atención de solicitudes de la ciudadanía. Desarrollo de competencias en base a la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local y Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas</i></p>
Hartzaileak <i>Destinatarios</i>	<p>Arloan eskumena duten beste Administrazioei jakinarazi ahal izango dira datu pertsonalak.</p> <p><i>Los datos personales podrán ser comunicados a otras Administraciones Públicas con competencia en la materia.</i></p>
Eskubideak <i>Derechos</i>	<p>Interesa duen pertsonak eskubidea izango du datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezerezteko, eta datu horien tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko, Udaleko helbidera jakinarazpen idatzi bat bidaliaz identitatea egiaztatzen duen agiria sartuz bertan.</p> <p><i>La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento mediante el envío de una comunicación escrita a la dirección del Ayuntamiento incluyendo documento acreditativo de su identidad.</i></p>
Informazio gehiago <i>Información adicional</i>	<p>http://www.oiartzun.eus/datu-babesa</p>

II. ERANSKINA: Zinpeko aitortpena

Eskatzaileak hau aitortzen du:

Ez dagoela sartuta dirulaguntza publikoak itzularazteko edo zigortzeko inongo prozeduratan.

Onuraduna, Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan eta Foru Ogasuneko Betebeharretan eguneratuta dagoela.

Fakturazioa %50 edo gehiago murriztu izana apirilean, 2019ko azken 6 hilabeteetan fakturaturutako batez bestekoarekin alderatuta.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.1 eta 24.2 artikuluetan ezarritakoaren arabera, elkarateak:

- Ez duela urratzen emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren printzipioa honakoei dagokionez: helburuak, kideak onartzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduna, antolamendua eta/edo estatutuetan.
- Ez duela Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen ondoriozko debekurik.
- Ez duela sexu-bereizkeria egiteagatik administrazio-zehapenik eta/edo zehapen penalik.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betekizunak betetzen direla.
- Onarpen-prozesuan edo funtzionamenduan ez duela sexuagatiko bereizkeria egiten.

Laguntza eskabide honez gain ez duela helburu bererako beste laguntzarik eskatu edo jaso, beste inongo erakunde publiko nahiz pribatuk emana.

EDO

Laguntza eskabide honez gain helburu bererako beste laguntzak jaso edo eskatu dituela, beheko erakunde hauei:

Erakundea	Zenbatekoa	Egoera (Ebatzi gabe, ebatzita baina kobratu gabe edo kobratua)

Helburu bererako edozein erakunde publiko nahiz pribaturi diru-laguntza eskabiderik eginez gero, Oiarzungo Udalari jakinarazteko konpromisoa hartzen duela bere gain.

Eta, hala ager dadin, izenpetu egiten du.

(Data eta sinadura)

